

# Informazioaren teknologia berriak

230205-1(b2)jarduera

ESPERIENTZIA

Posizio-parametroak: kuartilak

Zailtasuna: 

❖ Aztertu arreta handiz taula hau. Esan herrialde bakoitzean banda zabaleko lineek zein ehuneko duten. Kopia itzazu datu hauek kalkulu-orri batean. Orria zuzenean eskura dezakezu iturri gisa ematen dugun helbidean.

	2003	2004	2005	2006	2007
<b>EB 27</b>	:	:	:	:	<b>18,2</b>
Alemania	4,8	6,7	10,2	<b>15,3</b>	21,1
Austria	6,6	8,7	11,6	<b>15,8</b>	18,4
Belgika	10,1	14	17,4	<b>20,7</b>	23,9
Bulgaria	:	:	:	:	5,7
Zipre	:	2	2,7	<b>6,6</b>	11,1
Danimarka	10,4	15,6	22	<b>29,6</b>	37,2
Eslovakia	:	0,4	1,5	<b>4</b>	6,9
Eslovenia	:	3,8	7,8	<b>11,4</b>	15,3
Espainia	4,3	6,7	10	<b>13,2</b>	16,8
Estonia	:	7,6	11,1	<b>16,6</b>	20
Finlandia	6,6	11	18,7	<b>24,9</b>	28,8
Frantzia	4	8,2	13,9	<b>18</b>	22,3
Grezia	0	0,2	0,8	<b>2,7</b>	6,8
Herbehereak	9,8	14,7	22,4	<b>29</b>	33,1
Hungaria	:	2,2	4,5	<b>7,5</b>	11,6
Irlanda	0,2	1,7	4,4	<b>8,8</b>	15,5
Italia	2,8	6,1	9,5	<b>13,1</b>	15,9
Letonia	:	1,5	3,7	<b>6,8</b>	11,6
Lituania	:	2,5	5	<b>8,4</b>	12,7
Luxenburgo	2,3	5,7	11,7	<b>17,4</b>	24,6
Malta	:	3,5	10,4	<b>12,8</b>	13,9
Polonia	:	0,5	1,9	<b>3,9</b>	6,8
Portugal	3,6	6,4	10,1	<b>12,9</b>	14,8
Erresuma Batua	3,7	7,4	13,5	<b>19,2</b>	23,8
Txekiar Errep.	:	0,7	4,3	<b>8,4</b>	12,2
Errumania	:	:	:	:	6,6
Suedia	8,6	12,1	17,1	<b>22,9</b>	28,3
<b>Euskal AE</b>	<b>3,8</b>	<b>6,7</b>	<b>10</b>	<b>14,7</b>	<b>18,7</b>

(:) Ez dugu daturik eskuartean.

**Mota horretako banaketa bat aztertzeko normalean posizio-parametroak edo "pertzentilak" izenez ere ezagutzen direnak erabiltzen dira.**

**Pertzentilak zehazteko, lehenengo erabaki behar da lagina zenbat zatitan banatu nahi den. Demagun 4 zatitan banatzea erabakitzen dugula. Kasu horretan lagina "kuartiletan" banatuko genuke.**

**Orain has gaitezen 2006. urteko datuekin lanean, hauek txikitik handira ordenatuta ematen ditugu:**

**2,7; 3,9; 4; 6,6; 6,8; 7,5; 8,4; 8,4; 8,8; 11,4; 12,8; 12,9; 13,1; 13,2; 14,7; 15,3; 15,8; 16,6; 17,4; 18; 19,2; 20,7; 22,9; 24,9; 29; 29,6.**

**Banaketa horren medianaren balioa honakoa da: 13,15 hau da, 13 eta 14 posizioetan dauden batezbestekoa. Guztira 26 balio daude.**

**Banaketa bi multzotan zatitu da:**

**2,7; 3,9; 4; 6,6; 6,8; 7,5; 8,4; 8,4; 8,8; 11,4; 12,8; 12,9; 13,1; eta 13,2; 14,7; 15,3; 15,8; 16,6; 17,4; 18; 19,2; 20,7; 22,9; 24,9; 29; 29,6.**

**Lehenengo multzoko mediana 8,4 da; eta 13tik 7.a denez, balioa 1. kuartila da.**

**Bigarren kuartila hurrengo mediana da: 13.**

**Bigarren multzoko mediana 18 da; eta 13tik 7.a denez, balioa 3. kuartila da.**

**Beraz, herrialdeak honela ordenatu dira:**

**1. kuartilean: Grezia, Polonia, Eslovakia, Zipre, Letonia, Hungaria, Lituania eta Txekiar Errepublika.**

**2. kuartilean: Irlanda, Eslovenia, Malta, Portugal eta Italia.**

**3. kuartilean: Espainia, Euskal AE, Alemania, Estonia, Luxenburgo eta Frantzia.**

**4. kuartilean: Erresuma Batua, Belgika, Suedia, Finlandia, Herbeherak eta Danimarka.**

